

HUTS IZENONDOA

Huts izenondoak oso erabilera desberdinak izan ditzake. Alde batetik, beste edozein izenondo bezala erabil daiteke, testuinguruaren arabera esangura desberdinak har ditzakeelarik. Hona hemen zenbait adibide:

Nik kafe **HUTSa** hartzen dut.

Hau ez da lurrina, alkohol **HUTSa** baizik.

Zertarako behar duzu botila **HUTS** hori?

Poltsa **HUTS** hori zurea da?

Hala ere, zenbaitetan, izenondoekin erabiltzen da balio enfatikoarekin, oso, guztiz edota izugarri maila-adberbioen antzeko esangura hartzen duelarik orduan. Adibidez:

Xabier on **HUTSa** da, ezta?

Horri ez esan, alfer **HUTSa** da eta.

Andoni gezurti **HUTSa** da.

Beste zenbaitetan, hauetan ere balio enfatikoarekin, izen batekin erabiltzen da, «besterik ez, baino ez» esapideen esangura hartzen duelarik. Adibidez:

Mikel nerbio **HUTSA** da.

Hori gezur **HUTSA** da.

Izenondo hau aditz-izenarekin ere erabil daiteke. Adibidez:

Ikuste **HUTSarekin** igarri zion zer zeukan.

Bere ahotsa entzuTE **HUTSak** itzelezko poza eman dit.

Nahi izaTE **HUTSak** ez du ezertarako balio.

Bestalde, huts izen gisa ere erabil daiteke, «zero», «materia hutsa» edo «ezereza» adierazten duelarik orduan. Adibidez:

HUTSean (ezerezean) geratu da dena.

Unibertso osoa **HUTSetik** sortu omen zen.

Nola geratu dira azkenean? Hiru eta **HUTS**.

Azkenik, huts hainbat esapide eginetan ere aurki dezakegu. Adibidez:

Esku-HUTSIK etorri naiz.

Zer egiten duzu **OINUTSIK** dagoen hotzarekin?

Sekulako hotza egin arren, **MAKUTSIK** (mahuka-hutsik) atera da.

Penalti bat **HUTS EGIN** dute, eta **HUSNA** geratu dira.

HUTS EGIN dut gaur goizean.

Eta **HUSKERIA** horregatik haserretu dira?



HUTSUNEAK BETE

1. Begi _____ ikusten dira zomorro horiek.
2. Kafe _____ nahi dut.
3. Esku _____ etorri zen klasera, ez koaderno, ez kartapazio.
4. _____ hurrengo da Andoni. Ez du ezer zuzen egiten.
5. Idazlaneko _____ zuzendu zituen irakasleak.
6. _____ eta bi irabazi zuen Osasunak Bernabeun.
7. Seme-alabak emantzipatu ziren eta _____ sentitzen du orain amak.
8. Gurasoei deitu diete nik gaur institutuan _____ egin baitut.
9. _____ ontziratuta erosten dut nik normalean gazta. Denbora luzeagoan gorde dezaket horrela.
10. Larunbatetan lan egin behar dudala pentsatze _____ urduri jartzen nau.
11. Atorra _____ / Mahuka _____ ibiltzen da uda zein negu.
12. _____ dago botila hori. Bota ezazu!
13. Euskara _____ egunkari bakarra BERRIA da.

14. Dejada
Martinez

zuen.

15. Ergel
Zaude



egiten saiatu zen
de Irujo, baina
_____ egin

_____ zara!
isilik! / Alfer
_____ zarete!



Erantzunak

- 1) Begi hutsez ikusten dira zomorro horiek.
- 2) Kafe hutsa nahi dut.
- 3) Esku hutsik etorri zen klasera.
- 4) Hutsaren hurrengoa da Andoni. Ez du ezer zuzen egiten.
- 5) Idazlaneko hutsak zuzendu zituen irakasleak.
- 6) Huts eta bi irabazi zuen Osasunak Bernabeun.
- 7) Seme-alabak emantzipatu ziren eta hutsunea sentitzen du orain amak.
- 8) Gurasoei deitu diete nik gaur institutuan huts egin dudalako.
- 9) Hutsean ontziratuta erosten dut nik normalean gazta.
- 10) Larunbatetan lan egin behar dudala pentsatze hutsak urduri jartzen nau.
- 11) Atorra hutsean / Mahuka hutsean ibiltzen da uda zein negu.
- 12) Hutsik dago botila hori. Bota ezazu!
- 13) Euskara hutsezko egunkari bakarra BERRIA da.
- 14) Dejada egiten saiatu zen Martinez de Irujo, baina huts egin zuen.
- 15) Ergel hutsa zara! Zaude isilik! / Alfer hutsak zarete!